

BERRIGARA



Pazkuak 97



MARKIEGI
autoak

Leizeaga, 1
(San Lorentzo Industri Poligonoa)
20570 BERGARA (Gipuzkoa)
Telefona: 76 35 09



IRAURGI

Kruz Gallastegi, 7 BERGARA
TF. 76 03 96

San Franzisko, 8 TOLOSA
TF. 65 23 25

Dr. Camino, 1 DONOSTIA
TF. 42 85 85

ATEAK.

PVC, ALUMINIO,

EGUR ETA

POLIURETANOZKO

LEIHOAK.

TARIMAK.

PARKETAK.

HORMA ARMAIRUAK.

ARMAIRU

IRRISTAGARRIAK, ATEEKIN

JOKUA EGITEN DUTENAK



Kruz Gallastegi, 9 BERGARA Tf. 76 07 37

Tapizak, mokatak, alfombrak



GASTONY DANIELA

DISKOTEKA

Jam diskotekan hainbat saio antolatu dira Pazkuetan: gaur, ostirala, 22etan *Dog Eat Dog* eta gonbidatutako talde baten kontzertua izango da (2.200 pezeta) eta goizeko 6etatik aurrera diskoteka saioa; zapatuan, 22etan, *Misfits*, *Subzero* eta *Sardonica* taldeen kontzertua (2.200 pezeta aurretik erosita eta 2.500 takilan) eta, goizeko 4etan hasita eta astelehenean goizeko 10ak bitartean, *Rave* jaialdia: gogorak, *dragqueenak*, ikuskizunak..., eta abar luze bat. Ibizarako bi pertsonarentzako bidaia ere zozketatuko da jaialdian zehar. Astelehenean martitzenera bitarteko gauean ere jaialdia izango da eta, azkenik, asteartean, goizeko lauretatik aurrera, jaien amaiera (sarrera doan).

SEÑOR NO INFERNUKUAN

Infernukua tabernak ere kontzertu bat iragarri du domekarako. *Señor No* talde donostiarrak bere ohiko *rock & roll* gogorra eskeiniko du gaueko 11.30etatik aurrera.

ONGI-ETORRIA TXERRARI

Gestorek ongi-etorria egingo diote zapatuan Jose Ramon Aiastui "Txerra" preso bergararrari. "Txerra" arratsaldeko zapzi t'erdia aldera iritsiko da Labegarrietako Zabala tabernara eta jarraian kotxe karabana aterako da txoznetara. Bertan ia lau urtez preso egon den Txerraren omenezko ekitaldia izango da. Era berean, Gestorek euskal presoen Euskal Herriratzearen aldeko manifestazioa deitu dute zapatarako. Manifestazioa gaueko ordu bata aldera hasiko da. Eta astelehenean, berriz, arratsaldeko 6ak inguruan hasita, hiru bat orduko enkartelada egingo da Plazan.

LEHEN MAILARA

Bergara K.E.ko infantil mailako taldeak ohorezko mailara igotzea lortu du dagoeneko. Bestalde, bihar, zapatua, 11:30etan Union Txiki taldea

ren aurka Ipintzan jokatu duen partiduan garaipena edo berdinketa lortzen badute, Gipuzkoako txapel-dunak izango genituzke Aranbururen mutilak.

SAN ISIDRO FERIA ANTZUOLAN

San Isidro feria ospatuko da zapatuan Antzuolan. Goizeko 11etatik arratsaldeko bostak bitartean gaudu feria eta baserriko tresnak ikusgai izango dira Plazan. Azokan, berriz, bertako gazta eta barazkiak eta Iparraldeko produktuen salmenta egingo da 11etatik 14:00etara eta, era berean, bi erakusketa izango dira ikusgai: baserriko tresnen miniatrak batetik eta txorimaloak bestetik. Bukatzeko, 6etan Goenatxo harrijasotzailearen eta Nartxi Saralegi eta Daniel Vicente aikzolarien saioak izango dira. Egun guztian zehar soinu-joleak arituko dira.

IGERILEKUAK ITXITA

Jaietan Agorrosingo igerilekuak itxita egongo dira zapatutik martitzenera bitartean (biak barne).

OGIA

Ogiaren turnoa Konde (domekan) eta Mizpildi (martitzenean) okindegiei dagokie.

FARMAZIAK

Goardiako farmaziak: Estella (egukitzean), Mozos (zapatu eta domekan), Camacho (astelehenean), Puy (martitzenean), Guallar (egustenean) eta Estella (egunean).



SECRETOS DEL CORAZON

Novedadesen Montxo Armendarizek zuzendutako *Secretos del corazón* filmea ikusi ahal izango da jaietan. Ostiralean eta zapatuan 22:30etan, domeka eta astelehenean 19:30 eta 22:30etan, martitzenean 22:15etan eta asteazkenean, azkenik, 19:30etan. Berlingo azken zine jaialdian Europako filme onenari zegokion *Aingeru Urdina* izeneko saria jaso zuen filme honek. Errepartoan, Carmelo Gomez, Charo Lopez edo Silvia Munt aktoreak. Bestalde, hilaren 22ko zine-klubean, *Retrato de una dama* filmea emango da 8etan. Jane Campionen filme honetan Nicole Kidman aktorea dugu protagonista nagusia.

BERGARA HIRIA LEHIAKETAKO ARGAZKI ERAKUSKETA



Bergara Hiria XIII. Argazki Lehiaketara aurkeztutako lan onenen erakusketa zabalik izango da Kultur Etxean maiatzaren 25era arte. Agustin Gurrutxaga bergararrak irabazi du aurten zuri-beltzeko argazkien lehiaketa aldameneko argazkiarekin, eta koloretako argazkiarena, berriz, Benito Canterok. Guztira 84 argazki eta 40 argazkilari aurkeztu dira lehiaketara, tartean 10 bergarar.

- *Antzinako hormako erlojuen konponketa eta zaharberritzea* •
- *Opari-gaiak • Kirol trofeoak* •

Bidekurutzeta, 16 BERGARA Tf. 76 23 94

ETXE BERRIA

bitxitegia

erlojutegia

- *Swarovski kristalezko irudiak* •
- *Erloju eta bitxitegi tailer propioak • Bitxien transformazioa* •

ALTO DEBA
Garraioak



Jai zoriotsuak opa dizkizuegu bergarar guztioi eta bereziki gure bezero estimatuoi. Aldi berean, gure egoitza berriaren helbidea ezagutarazten dizuegu: Santalaitz kalea, 5 (I.A.T.-I.T.V. aurrean).

Zuen garraio beharrianeiei erantzuteko prest gaituzue beti.

San Lorenzo poligonoa, Santalaitz 5 (I.A.T.-I.T.V. aurrean)
20.570 BERGARA
Tf. & Faxe 76 07 83

BERRIGARA

ERROTALDE JAUREGIA

20570 Bergara

Telefonoa: 76 03 97. Faxa: 76 08 19

Argitaratzailea: JARDUN.

Zuzendaria: Eneko Azkarate.

Erredakzioa: Eduardo Mendibil eta Mikel Elkoroberezibar.

Maketazioa: Iñaki Iturbe.

Publizitatea: Kristina Romero.

Harpidetzak: Gorka Elortza.

Testuen zuzenketak: Estepan Plazaola, Maripi Laskurain eta Alex Labaien.

Erredakzio kontseilua: Gorka Elortza, Miguel Angel Elkoroberezibar eta Alex Labaien.

Banaketa: Txantxangorri taldea.

Tirada: 4.500 ale.

Inprimategia:

Gertu Koop. Elk. (Zubillaga. Oñati).

Copyright: BERRIGARA.

Lege gordailua: SS 50/91.

ISSN: 1130-6599.

BERRIGARAK ez du bere gain hartzen aldizkarian adierazitako esanen eta iritzien erantzunkizunik.



Aldizkari honek Bergarako Udalaren laguntza jaso du.



Aldizkari honek Gipuzkoako Foru Aldundiaren laguntza jaso du.



Aldizkari honek Euzko Jauriritzaren Kultura sailaren laguntza jaso du.

ALKATEAREN AGURRA

Jaien atarian herritarrak agurtzeko aukera dut berriz ere. Modutan joaten da denbora! Oraindik 1996ko Pazkuak atzo zirelakoan... eta hemen ditugu berriz ere gure jaiak.

1996a ez da aurreko urteak bezalakoa izan. Ohizko eta eguneroko eginkizunez gain, ospakizun garrantzitsuak izan ditugu tartean: Musika Eskolaren X. urteurrena eta Aransgiren eta Xake Taldearen XXV. urteurrenak ospatu ditugu.

Joan den urtean urteurren asko ospatu baditugu, 1997a ez da horretan motelagoa izango: Bergarako Filatelia eta Numismatika Elkarte, Ipintza Institutua, Jubilatuen Etxea, Igeri Elkarte eta Aranzadi Ikastola 25 urtez Bergarako herriarekin eta herriarentzat izan dira lanean. Lerro hauen bidez, jaso bezate gure eskerronik beroena erakunde horiekin elkarlanean ibili diren guztiek eta baita otsailen San Martinen Martirioaren IV. mendeurrenako antzezlanean parte hartu zuten guztiek ere.

Aurtengo jaien egitaraua ilusio haundiz prestatu dugu. Egun hauetan ondo merezitako atsedena har dezagun, eguneroko arazoak albora utzi eta geldialditxoak egin dezagun. Gero ere izango da ahaleginaren biderei berriz ekiteko astirik.

Aipamen berezia aurtengo Pazkuetan gure artean egoterik izango ez duten guztientzat; eta jaiok bizi izateko zoria duzuenoi, berriz, bete-betean gozatzea opa dizuet.

Zuen alkatea: Victoriano Gallastegi

MISTOA ETA ESTETIKOA:

Zubieta 38, behea

☎ 78 37 70

GIZONEZKOAK:

San Lorentzo 2, behea

☎ 78 58 08

BERGARA

ILEAPAINDEGIA



DIEGO VALOR

E G I T A R A U A

15:00:

Jaietako I. Graffiti Lehiaketa Kruz Gallastegi eta Irizar kaleetako oholetan. Akulu AEK euskaltegiak, Udal Euskaltegiak, Euskal Herriar Euskaraz erakundeak eta Jardun Elkarteak antolatuta.

20:10:

Eskola Kiroleko txapelketetako sari banaketa San Martin plazan.

20:30:

"Alkateak eta politikoak Bergaran" argazkien erakusketa irekiko da Udaletxeko pleno aretoan.

21:00:

Barraken irekitzea Beheko Estazioan.

21:00:

Txoznen irekitzea Bideberrin.

22:00:

Rock kontzertua Bideberrin, Undershakers, The Lazy Sundays, Purr eta Manta Ray taldeekin.



Bitorianatxoren jeitsierarekin batera jaietako hasiera emango zaie eta Beheko Estazioan barrakak zabalduko dira. 120-125 pezeta artean kostako da aurten barraketan buelta bat ematea. Noria, auto-txoekak eta interaktiboak dira haurren faboritoak.



22:30:

Gozategi'z Blai musika eta dantza ikuskizuna Udal Pilotalekuan. Gozategi taldeak eta hainbat dantzari prestatutako ikuskizuna.

23:30:

Almen taldearekin dantzaldia San Martin plazan.

17:15:

Eskola kiroleko txapelketako finalak.

20:00:

Bitorianatxoren jeitsiera San Martin plazan jaietako hasiera emateko.

20:30:

Udal Musika Bandaren kalejira herriko kaleetatik zehar.

Mikel Murgizuk eta Kiñu argazki dendak prestatutako erakusketa.

20:30:

Almen taldeak alaitutako dantzaldia San Martin plazan.



Musikaz gozatzeko nahi beste aukera izango da jaietan. Eguakitzean, Bideberrin, Frontoia eta San Martin plaza musika topaleku izango dira. Plazan Almenek alaitutako dantzaldia.

**BURDINAKI DENDA
INDUSTRIARAKO HORNIKUNTZAK**

LAKOTA O.B.

Amillaga, 1 (3. pabiloia) BERGARA
Telefona eta faxa: 76 08 32

*AZBEren Mecatronic zerrailaren
banatzaile ofiziala.*



METABO erremintak

- Harria lantzeko makina.
- Taladroak.





Felix Beitia
JAI BATZORDEKOA

Buruhaundi eta erraldoiak ez dira modaz pasatu? Neska-mutikoak lehen beste beldurtzen dira?

Ez dut uste modaz pasatu direnik, gaztetxo ugari etortzen da zapatuko kalejirara. Tradizio handia daukate. Buruhaundi eta erraldoiak Donostiako *El rey de las fiestas* dendatik ekarri genituen orain 20 bat urte eta momentuan bi erraldoi, lau kiliki eta sei buruhaundi dauzkagu. Erraldoien eskuak lehengo zaharrenak (urrezko armazoia zutenak) dira oraindik eta buruhaundiak apurto ahala berritzen ditugu. Jantziak berrizteko orduan monja zaharrek laguntzen digute. Erraldoiekin Felisin, Guti eta hirurok ibiltzen gara eta besteak ikasleek eramaten dituzte. Zelako jendea etortzen den? Ba, gaztetxoak eta zirikatzaileen batzuk. Iaz izugarritzko muturrekoa hartzeko zorian izan nintzen...

“Iaz izugarritzko muturrekoa hartzeko zorian izan nintzen”

Bost txozna jarriko dira aurten Bideberri inguruan

Aurten bost izango dira Bideberrin txoznak jarriko dituzten kolektiboak. Rock kontzertuen laguntzaz, ahalik eta jende gehien erakartzen saiatuko dira.

AEK, Amnistiaren Aldeko Batzordea, Aranzadi Ikastola, Euskal Herrian Euskaraz eta Ipintza Institutuaren txoznak izango dira aurten Bideberrin. Bertan antolatzen diren kontzertuek jende dextente erakartzen dute eta Andoni Arroyo hainbat urtetan txoznetan lanean izan denak aipatzen digunez, *“batez ere ostiralean eta zapatuan etortzen da jendea txoznetara. Kanpoko jende piloa etortzen da bi egun horietan eta igartzen da, jendea atendi du ezinean egoten gara, gaupasero asko biltzen baita orduan. Domekatik martitzenera bitartean askoz ere modu lasaiagoan egiten dugu lan. Astebukaerakoa zoramena izaten da”*.

Udalak txoznen inguruan egindako arautegiari jarraituz, goizeko laurak aldera emendatu beharko da musika txoznetan. Andoni Arroyok aipatzen digunez, *“Arratsalde eta gauzez lan egiten dugu batik bat eta musikari dago-kionez, aurten guztiak ados jarri gara Euskal Herriko musika jartzeko. Musika ekipoa institutuko ikasleen txoznan egongo da eta Bideberrin musika bakarra jarriko da, bestela nahaste izugarria izaten zen eta”*.


Txozna jarriko duten kolektiboek 35.000 pezetako seguru bana sinatu beharko dute eta horrez gain Udalak 25.000 pezetako fiantsa kobratuko dio bakoitzari. Jaien ostean inolako kalterik izan ezean, fiantszako dirua bueltatu egingo zaie. Era berean, Bideberriko ingurua garbi mantentzeko asmoz, lau komun publiko eta zaborra jasotzeko beste lau kontenedore jarriko dira.



Euskal Herriko musika bakarrik jarriko dute aurten Bideberriko txoznetan.

ERLOJUDENDA

Ondo pasau jaixetan!!

AINH  A

Boni Laskurain, 2 ☎ 76 47 40

BITXITEGIA


GRAFFITI LEHIAKETA • ARTEA OHOLETAN

Euskal Herrian Euskarazek, Udal Euskaltegiak, Akulu AEK euskaltegiak eta Jardun Elkarrean antolatutako lehiaketara aurkeztutako 10 graffitiak gaur margotuko dituzte arratsaldeko 3etatik aurrera Kruz Gallastegin eta Irizarren.

Euskararen alde lan egiten duten lau elkarteek euskara bultzatzeko helburuarekin antolatu dute lehenengo graffiti lehiaketa. Gauzak azkenengo orduan eta presaka egin arren, 10 egunetako epean, 10 bozeto aurkeztu dira lehiaketara. Guztiak ere 17tik 22 urtera bitarteko gazteek eginak. Denbora gutxi eman arren, erantzuna ona izan dela esan digu antolaketa batzordeko Nora Palmitanok. "Oso denbora gutxirekin ibili gara eta jaso diren marrazkiak benetan oso politak dira".

Marrazkiaren egitura, kolorea, kalitatea eta abarrez gain, mezua ere baloratuko da saria ematerako orduan. Izan ere Nora Palmitanok adierazi digunez, "lehiaketarekin euskara bultzatu nahi dugu eta horretarako ekintzarik aproposena graffitien iruditu zaigu. Marrazkiak gain jarritako mezua ere baloratuko da, eta normala denez, euskararen aldekoa izango da mezu hori".

Margolariak arratsaldeko 3etan hasiko dira lanean eta lau ordu inguru izango dituzte graffitiak bukatzeko. Antolatzaileek materiala lagako diete margolariei eta epaimahaia Iñaki Iturbe, Ion Andoni Urisabel eta Karlos Gallarraga pintore bergararrek osatuko dute. Dagoeneko bozetoak ikusteko aukera izan dute eta, Iñaki Iturbe epaimahaikidearen iritziz, aurrez behintzat ez dago lehiaketa irabazteko faboritorik: "bozetoak ikusita ezin da gauza haundirik esan. Ikusten da dibujo bezala daudela eginda eta gero




Lehiaketa parte hartuko duten bi bozeto.

ez dakit zela geratuko diren graffiti moduan". Epaimahaia arlo artistikoa aztertzeaz gain, mezua ere oso kontutan izango ei du Iturbek esan digunez. "Gaia euskara da eta hori baloratuko da. Bestela, graffitia eskalara egokitu dagoen, kolorea, egitura, forma... gauza asko daude hor eta segun eta zela konbinatzen diren ona edo ez hain ona izan daiteke marrazkia".

Koloreei dagokienez, normalean graffitiek kolore biziak izaten dituzte; baina hori ez da derrigorrezkoa lan on bat egiteko. Iñaki Iturberen iritziz, "gertatu daiteke graffiti bat kolore ilunekin eginda egotea eta ona izatea".

Lehiaketaren sari banaketa bihar, zapatua, Bideberriko rock kontzertua hasi baino lehen egingo da. Irabazleak 30.000 PTA jasoko ditu, 20.000 PTA bigarrenak eta 10.000 hirugarrenak.

10 graffiti margotuko dira Kruz Gallastegi eta Irizarreko oholetan



ARTZ

ALBAITARI KLINIKA

Zurradero 6, behea
Telefona: 76 70 67
Mobila: 907 48 71 19

ONDO PASAU JAIXAK!

Amaia Lurrindegia

Usaindegia eta oparigaiak


EDERTZE ARETOA

**ORRATZIK GABEKO betirako depilazioa
TERMOSLIM METODOA**

SOLARIUMA DUTXAREKIN

**Aurpegiaren tratamendua (goiko ezpaina,
okotza, patilak), bularra, bizkarra, besoak,
bernak, izterondoak, besapeak eta
sabelaldea.**

Barrenkalea, 25 Tf. 76 16 97



MARGA

JANTZIDENDA

Zorionak Pentekoste jaietan!!

San Pedro, 20. Tfnoa: 76 05 37

ELKAR

ELEKTRAGINTZA



Mota guztietako instalazioak



76 00 00

Koldo Eleizalde, 8.
BERGARA

Primitiva Morenoren oinordekoak
Arrain freskoa eta konjelatua
Mota guztietako mariskoak

**ITXAS
EDER**
ARRAINAK

Marisko Haztegia

Mintegi kalea, 5 behea **BERGARA**

Telefonoak: Arraindegia: 76 47 41 • Etxea: 76 21 08 • Mobila: 908 77 04 88


GOZATEGI'Z BLAI • MUSIKA ETA DANTZA

Gozategi'z blai" euskal musika eta dantza tartekatzen dituen ikuskizuna izango da gaur Udal Pilotalekuan, gaueko 10:30etatik aurrera. Gozategi taldearen musikaren laguntzarekin, bertan parte hartzen duten dantzariak erromeria antzetzuko dute. Jai giroan murgiltzeko aukera ezin hobea...

"Gozategi'z blai" izenburuko ikuskizuna orain dela pare bat urte estreinatu zen baina Gozategi taldeak azkenaldian izan duen konpromezu piloa dela eta, apenas jarraipenik izan duen azken hil hauetan. Estreinuaren ondoren Argentinan ere izan ziren eta Edu Muruamendiaraz bergarar dantzariak azaltzen digunez, "Argentinako pare bat hiritan izan ginen orduan eta oso harrera ona izan genuen. Euskal folkloreak jarraitzaile asko dago han eta espektakulua guztiz diferentia iruditu zitzaion. Oihartzun nahiko handia izan zuen eta guretako oso esperientzia aberasgarria izan zen hura". Harrezkero, sei bat emanaldi eskeini dituzte Euskal Herriko hainbat herritan.

Gozategirekin batera Euskal Herriko zenbait dantza taldetako dantzariak (Edu Muruamendiaraz tartean) hartzen dute parte ikuskizunean musikaren koreografiak dantzatzu. Eduren hitzetan, "zenbait abesti oso ezagunak dira: "Hator, hator", "Peio Joxepe tabernan dago", "Donostiako martxa", Zuberoako dantza bat ere bai... Guztira, 13 dantzari arituko gara, sei neska eta zazpi mutil eta emanaldian zehar erromeria antzetzuko dugu". Edurekin

Gozategi taldearen eta zenbait dantzariaren arteko elkarlana da Gozategi'z Blai.



batera, besteak beste, Jon Maia eta Asier Beobide dantzariak izango dira. Emakumezkoetan, berriz, Donostiako Eskola dantza taldea, Beasaingo Ostadar taldea eta Altsasuko Aintzindari taldeetatik aukeratutako neskek hartuko dute parte gaurko ikuskizunean. Mutilak alkondara txuria eta praka urdinekin aterako dira; neskek, bestalde, jantzi ezberdinak erabiliko dituzte. Edu Muruak jendearen parte hartzea lortu nahiko luke gaur; "asmoa hori da. Erromeria antzetztean, jendea dantzan jarri nahiko guke. Jarrira ikusteko espektakulua bada ere (adin

guztiei zuzendutakoa), amaiera polita izango litzateke ikusleak ere gurekin dantzan hasiko balira. Ea jendea animatzen den...".

Gozategirekin batera Euskadiko txistu txapeldunordea arituko da eta horrez gain, jakingo duzuen bezala, Fran Iturbe Gozategiko kitarrajole bergararrak ere hartuko du parte. Eduren esanetan, "jendeak orain arte asko disfrutatu izan du eta ea Bergaran beste horrenbeste gertatzen den. Ez dakit jaiak izanik jendea prest egongo den Frontoian sartzeko baina ziur naiz etortzen direnek ondo pasatuko dutela...".

Ikuskizunerako sarrerak 1.000 eta 700 pezetan (Gazte Txartela dute-nentzat eta langabetuentzat) salduko dira gaur Frontoiko takilan.

Edu Muruamendiaraz bergararrak ikuskizunean parte hartuko du

NINIKA

Ramon Maria Lili, 8 Tf. 76 10 01

LOREAK MUNDU
OSOAN



INTERFLORA

Ioradenda

Ondo pasau Bergarako jaietan!



eguakitza

■ ALKATEAK ETA POLITIKOAK • ERAKUSKETA

Jaiel hasiera emateaz batera, Mikel eta Josuren Murgizu anaiek prestatutako "Alkateak eta Politikoak Bergaran. 1877-1997" argazki erakusketa zabalduko da Udaletxeko pleno aretoan. Erakusketan, besteak beste, azken 120 urteetan Bergarako alkate izan diren argazkiak biltzen dira. Mikel Murgizuk eman dizkigu erakusketari buruzko xehetasunak.

Zela bururatu zitzaizuen erakusketa egitea?

Argazkigintza betidanik gustatu izan zaigu eta erretratu zahar ugari geneukan etxean. Bestalde, orain dela pare bat urte, lumatxo egindako marrazkien erakusketarako argazki zaharrak erabili nituen. Orduan Kutzako fototekara joan ginen zer zegoen ikustera eta sekulako ustekabea hartu genuen, Bergarako argazki zahar ugari baitzeuden. Horrela hasi ginen, astebukaeretan eta opor garaietan materiala biltzen.

Erakusketan 50 argazki erakutsiko dituzue eta gehienetan Bergarako alkateak izan direnak agertzen dira.



Eusko Ikaskuntzaren V. Kongresoa (1930). Geronimo Etxaniz, Antonio Pagoaga, Arturo Kanpion, Karmelo Etxegarai eta Telesforo Aranzadi (lehen planoan).

Bai, argazki zaharrak aztertzen hasi ginenean konturatu ginen gehienetan herriko agintariak agertzen zirela, argazki asko ekitaldi ofizialetakoak zirelako. Horregatik tituluatu dugu "Alkateak eta Politikoak Bergaran". Udaltan artxibora joan ginen eta Udaleko aktetan begiratuta, azken 120 urteetako

alkateen zerrenda atera genuen. 1877.etik gaur egun arteko alkate guztiak agertzen dira, bi izan ezik, Pedro Unamuno eta Vicente Eizagirre (1880-90 urtekoak). Telesforo Monzonekin hasi eta Victoriano Gallastegirekin amaitzen da zerrenda. Lehen urtebete egoten ziren alkatetzan eta batzuk behin baino gehiagotan egon ziren, garai diferenteetan. Alkateez gain, politika, kultura edota gizarte arloko hainbat pertsona ospetsu ere agertzen dira eta baita gertaera historiko aipagarri batzuetako argazkiak ere: 1919ko Vasco-Navarro trenbidearen inaugurazioarena, 1930.ean Eusko Ikaskuntzaren V. Kongresua egin zenekoa... Bestalde, erakusketan Alcalá Zamora II. Errepublikaren garaiko gobernu burua; Primo de Rivera, erregetzako ordezkariak edota ministro izatera heldu ziren generalak ere ikusi daitezke.

Eta Francoren argazkirik lortu duzue?



1942.ean, Rufino Beitia alkate zela, Remigio Mujikari omenaldia eskaini zitzaion.

Bidekurutzeta, 6
Tfnoak: 76 10 25

Gracian

Usaindegia - Mertzeria


Jai
zoriontsuak!!

Ez, saiatu gara eta toki askotan miatu dugu, baina ez dugu lortu. Badakigu Bergaran egon zela eta hori jasozuen argazkia badagoela uste dugu, baina ez dugu topatu. Franco 1939ko urrian egon zen hemen, Bergarako seme izendatu zutenean, eta bere emaztearekin eta alabarekin egon zen. Oso bisita laburra izan zen eta San Pedroko Kristoa bisitatu zuen. Alfonso XIII.a eta Maria Cristina errege-erreginak ere Bergaran, Etxeandun, izan ziren 1889.ean, baina horren argazkirik ere ez dugu lortu. Bestalde, Moscardo Ituarte generala Bergaran egon zeneko argazkia badaukagu. Bere ama bergararra zen eta Komenio kaleari bere izena jarri zioten gerra ostean.

Egin duzuen ikerketak Bergarako alkateak zelakoak izan ziren edota zer lan egin zuten ezagutzeko aukera eman dizue?

Bai, Ramon Urmeneta, esate baterako, oso ximurra izan zen eta egun guztia Udaletxean zegoen, ez zuen Osoko Bilkura batera ere hutsik egin. Jose Maria Murua, Errotaldekoa, berriz, ia ez zen Udaletxean agertzen; ezkongabea zen eta munduan zehar bidaiatzen ibiltzen zen. Elektrizitatea herriko kaleetara, bestalde, 1891. urtean ekarri zuten Ricardo Aranburu alkate zela; telefonoa, berriz, 1909.ean, Ramon Urmeneta alkate zela. Bestalde, lehen alkate abertzalea Iñaki Unzeta izan zen 1920.ean. Araba Buru Batzarreko presidentea eta Loiola batailoiko gudaria izan zen; herriak hautatu zuen bozketa bitartez eta 1923. urtera arte egon zen alkate, Primo de Riberak Angel Mujika jarri zuen arte. Hau pilotari ospetsua izan zen gaztetan, punta boleaz jokatzen zuen eta Argentinan-eta ibili zen;

1885.ean Udal Pilotalekuaren inaugurazioan jokatu zuen. Parisko frontoiko arduraduna ere izan zen. II. Errepublikak atera zenean, bestalde, Victor Ignacio Zubizarreta abertzalea aukeratu zuten alkate. Luis Ignacio Ruiz de la Prada alkate zela, 1930.ean, berriz, Eusko Ikaskuntzaren V. Kongresoa egin zen Bergaran. Aranzadi, Kanpion, Unamuno, Aitzol..., euskaltzale ugari



bildu zen. Alkatetzan urte gehien egon zena, bestalde, Luis Laskurain izan zen; 16 urte izan zen alkate eta beste 6 alkate orde, eta herriaren erdialdeak ezagutu dituen aldaketa urbanistiko garrantzitsuenen lekuko izan zen.

Datu hauek guztiak nondik atera dituzue?



1927. Primo de Rivera Bergaran (bastoiarekin). Ezkerrean Angel Mujika alkatea.

Udal Artxibategian ordu pilo sarrtu dugu eta Udaleko aktetatik eta hainbat liburu eta inprimakitatik atera dugu informazio gehiena. Bestalde, argazkietan agertzen direnak identifikatzeko, familiakoekin eta herriko pertsona zaharrekin izan gara; Nikolas Larrañagak, Esteban Quintanak eta Luisa Agirrezabalek eta beste askok laguntza handia eman digute.

Erakusketan argazkiak jarriko dituzue bakarrik?

Ez, argazki bakoitzaren azpialdean, bertan agertzen direnen izenak eta erretratuari buruzko informazio laburra agertuko da. Baina ez dugu testu asko jarriko, argazkiei eman nahi diegu garrantzia.

Eta datorren urterako-edo liburua argitaratzeko asmoa duzue...

Bai, erakusketako argazkiekin eta beste batzuekin, liburua egingo dugu. Liburuan testuari ere emango diogu garrantzia, ez ditugu argazkiak bakarrik sartuko. Politika, kultura eta gizarte arloko mende honetako kronika modukoa izango da.

Bergarako alkateak, eta politika, kultura eta gizarte arloko zenbait gertakari agertzen dira argazkietan

Ipiñarri zerrategia S.L.

MUEBLEAK. AROZGINTZA. ERAIKUNTZA. ENBALAJEA

IBARRA z/g. 20570 BERGARA. TELEFONOA: 76 15 93.

ROCK GAUA • LAU TALDE GAZTE BIDEBERRIN

Eguakitzean Bideberrin izango den rock kontzertuan, estatu mailako rock alternatibo berrien ordezkari nabarmenetakoak ikusteko aukera izango da: Gijongo Undershakers eta Manta Ray, Gironako The Lazy Sundays eta Purr donostiarrak.

Lau taldeek Madrileko Subterfuge zigilu independentearekin lan egiten dute eta laurek ingelesez abesten dute, baina estilo aldetik ez dute antzekotasun handirik.

The Lazy Sundays. Psikodelia

Katalanak, Gironakoak. Hirurogeiko hamarkadako azken urteetako *Britist Beat* ildoko Small Faces, Yardbirds, Who, Smoke eta abarren abestiak bertsioneatzen hasi ziren orain dela lau urte. Hainbat disko txiki eta beste talde batzuekin batera ateratako disko bat, eta beste iraupen luzeko bat, Londresen garabatuta, kale-ratu dituzte. Soinu psikodelikoak egiten dituzte, Hammond organoaren soinu bereziarekin.

Manta Ray. Corcobadoren lagunak

Gijongoak dira eta bi disko eta beste bi single dituzte kalean (horieta-ko bat Parisko *Lithium* zigiluaren eskutik Diabologum frantzesekin batera). Bestalde, Javier Corcobadorekin batera "Diminuto Cielo" izeneko disko-koa atera dute eta estatuan zehar hainbat kontzertu eskaini dituzte elkarrekin.



The Lazy Sundays gironarrek 60ko hamarkadako Psikodelia dute gustoko.

Undershakers. Gau Showa.

Neskez osatutako boskotea. Hauek ere Gijongoak. Iraupen luzeko disko bat, "Night Show" izenekoa, eta 4 abestiz osatutako disko txikia kale-ratu dute. Horrez gain, beste hainbat diskotan kolaboratu dute. Hirurogeiko hamarkadako sixtie soinua eta gaur egungo pop-a nahasten dituzte; garage-pop soinuak, baina soinu garbiak.

Purr. Donostiako ufala

Hasierako disko txikia entzun ondoren, Nois-Poparen ildoan, El Inquilino Comunista algotarren (Bideberrin jaietan izandakoak) ildo berean, kokatu zituen kritikak. Bestalde, Sonic Youth edo Husker Dü amerikarren jarraitzaileak direla esan du prentsa

espezializatuak. Hala ere, euren bu-rua ildo horretatik kanpo ikusten dute, nahiz eta aipatutako taldeak gustoko izan. Gustatzen zaien beste talde batzuk, Pavement eta Minutemen dira, eta baita La Buena Vida donostiarrak ere, estilo aldetik, hauengandik oso urrun egon arren. Disko txiki bat eta "Pur motion" (1996) izeneko zazpi kantuz osatutako beste bat dituzte kalean. Mikel Sagüesek, taldeko abeslariak, esan digunez, "gure ezaugarriak, kitarren zorrotz-azuna eta zuzenean erakusten dugun freskotasuna dira. Beraz, zuzeneko elektriko eta intentsoa eskainiko du-gu eguakitzean Bergaran". Mikelek Subterfuge zigiluan lan egiten du.

Udan hasiko dira urrian grabatuko duten bigarren diskoa prestatzen. "Aurreko diskoak kritika onak jaso zituen, baina ez da guk nahi adina saldu, formato berezia zuelako (20 minutuko iraupena). Bigarrena landuagoa eta produkzio hobea izango du" esan digu Mikelek.

Lau taldeak Madrileko Subterfuge zigilu independentekoak dira

G
Igaro

CLARINS
PARIS

G
GATINEAU

VERSACE

Burberrys
OF LONDON

JUVENA


LACOSTE

ROGER & GALLÉ
PARIS

Usaindegia · Edertze aretoa


Barrenkalea, 35 Tf. 76 17 27

ZURE AMETSETAKO BAINUA, OBRAK HASI AURRETIK IKUS DEZAKEZU



DIBA. Bainuaren Diseinu integrala.

DIBA Bainuaren Diseinu Integralerako programaren bitartez, zure ametsetako bainua obrak egin aurretik ikusi ahal izango duzu. Zatoz Luis Mari Larrañaga Iturgintzara, atsegin haundiz eta profesionaltasun osoz hartuko zaitugu!!



Iturgintza

Matxiategi, 16 BERGARA
Tf. 76 29 97 - 76 04 22

Larrañaga s.l.

TELAETXE S.A.

SAIL BERRIA: TAPIZEN ERAKUSKETA

OIHALAK eta OIHAL PUSKAK

Elgetako bidea (gasolindegitik 300 metrora, "Cotones Agirrezabal"en ondoan)

Telefonoak: (943) 76 39 40 - 76 39 41 • Faxa: 76 56 38 • BERGARA



Aukera haundia oihal eta pusketan, metroka zein pisura.

EDREDOI NORDIKOAK.

**TAPIZEN ERAKUSKETA: Zetak, kortinak, toailak,
yakareak, izarak, tapizak, e.a...**

**KONFEKZIO SAIL BERRIA bisita ezazu: Galtzak, parkak,
alkondarak, txandalak, sudaderak, jertseak, haurrentzako erropak...**

FABRIKAKO PREZIOAN!!

ORDUTEGIA: Astelehenetik ostiralera: 09:00-12:00 eta 15:00-19:30

Zapatuetan: 10:00-13:00 eta 15:00-19:30

■ PEGATINAK • AURTEN IKER EGIDAZURENA

Iker Egidazu bergararrak irabazi du aurtun Jardun elkarteak antolatzen duen pegatina lehiaketa "Gustokua izan deiñ danekin eiñ" esaldiarekin. Guztiok Egidazuren mezua praktikan jartzeko, Jardunek 4.500 pegatina kaleratuko ditu. Aurtengo edizioan 131 esaldi aurkeztu dira lehiaketara eta Jarduneko Gazte Taldekoek lan nekeza izan dute irabazlea aukeratzekoan.

Jaietan hainbat elkartetek pegatinak ateratzen dituzte euren kontsignak edo aldarrikapenak plazaratzeko. Due la 5 urte Jardun elkarteak Pazkuetarako euskararen aldeko pegatinak atera zituen lehen aldiz, euskararen presentzia jai giroan, ere bultzatzeko.

Orduetik, urtero Bittorianatxoren jeitsierarekin batera, bergarar askoren brusetan euskararen aldeko esaldiak eta esloganak ikusten dira. "Ni eitteko desiatzen... eta xu?"; "Zuk... eitten dozunian, zela? Nik euskaraz"; "Eizu nerekin... prest naukazu"; "Ein da ein... eta gustorau" eta "Ein biozunian erabilizu" izan dira orain arteko pegatinetan azaldutako esaldiak.

131 esaldiren artean, Iker Egidazu garaile

Badaezpada ere, pegatinak Jardunen sinadurarekin joaten dira, ez da ahaztu behar jaietan gaudela eta norbaitek esaldiaren mezua kontestutik atera eta... Aurtengo esaldia ez da gutxiagorako eta aurreko urteetakoari jarraituaz bi irakurketa ditu Iker Egidazu lehiaketaren irabazleak egindako

**Ni eitteko
desiatzen**

...eta xu?

Ia ba, JARDUN!

1.992 urtekoa.



1.993 urtekoa.

EIZU NEREKIN...

prest naukazu

Ia ba JARDUN!!

1.994 urtekoa.

EIN DA EIN...
eta gustorau

Ia ba JARDUN!!

1.995 urtekoa.

EIN BIOZUNIAN...
ERABILIZU!

Ia ba JARDUN!!

1.996 urtekoa.



Aurtengoa.

Orain arte atera diren sei pegatinak.

esaldiak, bestela irakurri: "Gustokua izan deiñ, danekin eiñ". Egidazuk esan digunez, esaldia eskolan zegoenean bururatu zitzaion, "aspertuta nengoen eta bi esaldi bururatu zitzaizkidan. Biak bidali nituen lehiaketara eta pozik nago eman didaten sariarekin". Ez dute lan erreza izan Jardun elkarteko Gazte Taldekoek aurtengo esaldia aukeratzekoan. Izan ere, lehiaketara 131 esaldi aurkeztu baitira. "Horrenbeste esaldiren artean bat aukeratzea oso zaila izan da. Epaimahikide bakoitzak esaldi batzuk aukeratzeko eta gehien aukeratzeko den esaldia izaten da irabazlea. Halere, esaldi asko izan arren, ez da oso mai-

la ona izan lehiaketan" esan digu Nekane Gabilondo Jarduneko dinamizatzaileak. Lehiaketara aurkeztutako esaldi guztiek esanahi bikoitzarekin jokatu dute.

4.500 pegatina

Halere, lehiaketetan irabazle bakarra izaten da eta esaldi onena egin duenari 10.000 pezetako saria ematen zaio. "Gustokua izan deiñ, danekin eiñ" esaldia herriko bazter guztietara heldu dadin 4.500 pegatina kaleratuko dira. Orain badakizue, esaldiak dioenari jarraitu, baina hori bai, bakarrik gustokoa izan deiñ!

Aurtengoa Jardunek pegatina ateratzen duen 6. aldia da; bertan, gustora izan dadin, egitera gonbidatzen da

ederTU

BARRENKALEA, 23 TF. 76 29 65

**Ondo pasau
Bergarako jaixak!**



egukitza

09:00:

XVII. Plastika Sariketa Librea
15 urtez azpikoentzat.
Izen ematea Kultur Etxean.

10:00:

Diana auzoetatik San Martin
plazaraino.
Bolutik losu eta lokin soinu-joleak.
Oxirondotik Udal Txistulari Banda.
Labegaraietatik Kobok
dultzaineroak.



11:00:

Mizpirualdera bisita txistulari
eta dultzaineroek.

11:00:

Atletismo progak Agorrosinen.
Atletismoa, luzera saltoa, hesiak
eta erreleboak izango dira haur,
kadete eta junior mailakoentzako.



11:30:

Xake txapelketa haurrentzako Za-
balotegin.

11:30:

Elkarteen arteko sukaldaritzako
lehiaketa San Martin plazan,
trikitilariet alaituta.

16:00:

Xake Azkarreko Euskadiko
Txapelketa, XXVI. Bergara Hiria sa-
ria, Mariaren Lagundian.

16:00:

Xakeko Adiskidetasun Kluben
Zirkuitua, Mariaren Lagundian.

16:45:

Profesional mailako pilota
partiduak Udal Pilotalekuan.
Pentekostes Feriari hasiera
emango zaio.

17:00:

Haurrentzako txekorrak eta
pottokak zezen plazan.

19:30:

Erraldoi, kiliki eta buruhaundien
kalejira, Udal Txistulari Banda
eta Kobok-ek, Bergarako
dultzainero taldeak, alaituta.

20:30:

Gaubela taldearekin dantzaldia
San Martin plazan.



**Urtero moduan, buruhaun-
dien aurretik korrika egin-
go dute gaztetxoek.
Zirikatzaileei gogor eman
ei, baina pasatzeke.**



**Goizeko 11etatik
aurrera hainbat
atletismo proga
jokatuko dira
Agorrosinen.
Zaleak elkarteak
antolatu du eta haur,
kadete eta junior
mailakoak arituko
dira. Luzera
jauzia, hesiak eta
errelebo probak
izango dira.**

22:30:

Rock kontzertua Bideberrin:
X Milk, Little Fish, Amphetamine
Discharge eta Subterranean
Kids taldeak. Aurretik graffiti
lehiaketako sari banaketa
egingo da.

23:30:

Gaubelak alaitutako dantzaldia
San Martin plazan.

Nerea

Lentzeria • Kortse-denda • Bainujantziak

Simon Arrieta plaza, 1 Tf. 76 19 52

Ondo pasau
jaixak!



Rafa Olañeta
JAOLATZA ELKARTEKOA

Jose Manuel Markiegirekin batera bi aldiz sukaldaritzako txapelkun izan zaitugu. Sukaldean, zein tre-beago, emakumea ala gizona?

Lehenengo andrak, gure amak eta amamak destakatuko nituzke, inolako produktu artifizialik barik janariari berezko ikutu bat ematen ziotelako. Baina gizonak ere nahiko ondo defenditzen dira sukaldean gaur egun. Ni neu etxean sukaldean ibiltzen naiz, oso gustokoa dut. Espezialitateak? Bakailaua, mariskoa, txuleta zaharra... Aurten ere bakailau lehiaketa irabazten ahaleginduko gara. Bakailaua gertatzeko sekretu bakarra 48 orduan ur hotzean beratzen izan eta sutan dora-tutakoan, sutatik atera, epeltzen laga eta 5 minututan eragin gelatina atera arte. Bakailaua non erosten dugun ez dizut esango, sekretua hori... Bixamona pasatzeko zer jan? Urdaiazpikoa tomatearekin ardo beltz on batekin.

“Bakailaua non erosten dugun ez dizuet esango”

Xakea ere protagonista Pazkuetako bost egunetan

Bergarako Xake Taldeak antolatuta, hainbat xake proba jokatuko dira aste-bukaera honetan. Herriko xakeza-leen deia erantzunaz, guztira, 300 bat xake jokalarik bilduko da astebukaera honetan Bergaran. Juegatik aldegin eta burua argi izan beharko dute hauek...

Begarako Hiria Xake Txapelketaren XXVI. edizioa jokatuko da domekan. Edurne Zabaleta Xake Taldeko kidearen ustetan, *“txapelketa hau partida azkarreko estatuko txapelketa ofizio-soa dela esan daiteke. Estatuko iparraldeko jokalariek izango dira, 18 bat talde denera eta guztiak oso maila onekoak”*. Gonbidatutako taldeen artean Bilboko La Peña Rey Ardid (Begarako txapelketako talderik betaranoetakoa) eta Oreretako Fomento Cultural taldea (Euskadiko txapelketa izango da) egongo dira. Partidak Ma-

riaren Lagundian jokatuko dira goizeko 9:30etatik aurrera eta jokalariek bosna minutu izango dituzte euren mugimenduak egiteko. Goizeko 10etan, kostaldeko eta barnealdeko herrien arteko xake lehia jokatuko da. Edurne Zabaletak umorez azaltzen digunez, *“ikusle dexente etortzen da partidak jarraituzera. Ez pentsa, espezie arraroa gara xakelariak, baina ez hainbesterainokoak... Xakerako afizio haundia dago hemen”*. Domekan ere, 16:30etatik 22etara bitartean, xake partida azkarren txapelketa irekia jokatuko da.

Larunbatean, 11etan herriko gazte-xoei zuzendutako promozio txapelketa izango da Zabalotegin (izen-ema-tea bertan); 4etan, xake azkarreko Euskadiko Txapelketa Mariaren Lagundian (20 bat talde izango dira lehiaketa) eta, era berean, xakeko adis-kidetasun klubaren zirkuitua.



Xakezaleek Bergaran dute zita Pazkuetan.

Ibargarai, 20 behea

BERGARA

Tf. 76 59 29

XAMARTIN KIROLAK

ADIDAS • LIBERO • REEBOK • TRANGO • MITO

■ AUPA NAVARRA • JOTA KANTARIAK

Nafarroako Erriberako ahots kementsuekin gozatzeko aukera izango dugu domekan "Aupa Navarra, los gigantes de la jota" taldearen eskutik. Nafarroako jota talderik ospetsuena, iaz ere Bergaran izan genuen eta oso inpresio ona jaso zuten entzun zutenek. Aurten errepikatu egingo dute.

Aupa Navarra taldea orain dela zazpi urte sortu zuen Tafalla eta Tuterako jotari talde batek. "Taldea 1990-ean sortu bazen ere, iaz aldaketak egin ziren eta gaur egun Nafarroako jota talderik ospetsuena da, Nafarroako jotaren ordezkari nagusiak direla esan daiteke. Taldekideak Nafarroa osoko 50 bat jota kantariaren artean aukeratutakoak dira eta hemen antolatzen diren jota lehiaketa garrantzitsuenak irabazitakoak dira. Jota munduko benetako liderrak dira" esan digu Javier Lakunzak, taldeko managerrak.

Esperientzia haundiko jotariak izan arren, oso gazteak dira (22-29 urte) eta kantatzen, zein instrumentoak jotzen iaioak. Seikotea honako hauek osatzen dute: Laura Lakunza, Ana Belen Perez, Miguel Auna eta Luismi Eras (ahotsak), Inaki Gil (akordeoia) eta Javier Bruna (kitarra). Guztiak Tuterako edo Tafallakoak dira, Luismi Eras izan ezik, hau Errioxako Alberitekoa baita.

Euren trebetasuna eta artea erakusten Europar zehar ibilitakoak dira. "Uda partean, batez ere, toki askotan ibiltzen dira, baita Europa erdialdean eta Frantzia ere. Estatuan, inguruko



Aupa Navarra, Erriberako jotariak domekan Bergaran.

probintzietan ezezik Levante aldean eta Madril inguruan ere kantatzen dute. Zapatu honetan Mirandan izango dira eta domekan Bergaratik Alfarora joango dira" esan digu Javier Lakunzak. Sevillako Expon eta Bartzelonako Olinpiadetan kantatzen egon ziren.

Domekan Bergaran kalez kale arituko dira, baina toki itxietan emanaldi asko eskaintzen dituzte. "Soinu ekipo oso ona erabiltzen dute, baina domekan 'a capella' entzuteko aukera izango duzue eta euren ahots ederrekin gozatu egingo duzue" diosku Javier Lakunzak. Kalejira alai eta atsegina egingo dute, kantatzeaz gain, jendearen parte hartzea bultzatzen baitute.

Erriberako jota ezagunak, tartean Indurainen ereserkia -"Indurain gure jarriztaileetako bat da"-, eta zenbait euskal kantu eskainiko dituzte.

Bukatzeko, Nafarroako jota definitu dezala eskatu diogu Javier Lakunzari eta zera esan digu: "kantagintzan egon daitezkeen ahotsik kementsuenak dira jota kantariarenak. Nafarren harrotasuna eta nortasuna adierazten dute".

Hala bada, hala bedi. Eta domekan gaupaseroak eta lo gutxi eginda kalera irteten direnak kontuz ibili daitezela, jotari hauen paretik pasatuz gero, bertan geratzeko arriskua izan dezakete eta.

"Kantagintzan egon daitezkeen ahotsik kementsuenak dira jotariarenak. Nafarren nortasuna adierazten dute"



**Matxiategi
Elektragintza
C.B.**


**ELEKTRIZITATE
MATERIALEN SALMENTA
ETA INSTALAZIOA**

Ondo pasau jaixak!!

Fleming Doktorea, 5 ☎ 76 19 94

Automobil aseguruak

Mapfre abantailak



Zure kotxeko
aseguruaren
abantaila buruzko
zehaztapen guztiak
emango dizkizugu.
**Zatoz eta
galdetu!!**

 **MAPFRE**
MUTUALIDAD

Simon Arrieta 3, Bergara
☎ 76 28 79 / 76 18 80



BERGARA
Barrenkalea, 35
Tf. 76 03 98

ARRASATE
Otalora z/g
Tf. 79 11 72

BEASAIN
Nafarroa etorbidea, 1
Tf. 88 48 65





Zuekin batera festara goaz



CAJA LABORAL
EUSKADIKO KUTXA

Pintxo bereziak, kazuelitak, bokadiloak, plater konbinatuak...
edota kopatxo bat lagun artean hartu nahi baduzu, zatoz **Kayak** tabernara.
Berriz ere zabaldu dugu **Matxiategi 3** behean.

Telefonoz ere hartzen dira enkarguak. Tf. 76 70 11



**ONDO PASAU
JAIXAK!**

JABE BERRIAK

KAYAK



50 urteko esperientzia eta profesionaltasuna egunez egun frogatuak.

Iturgintza, gas natural, propano eta butano eta berogailu instalakuntzak.

Sukalde eta bainu berrizketak.
Bainuko altzariak.

Jai zoriontsuak!

ITURGINTZA-BEROGAILUAK-GASA
BAINURAKO ALTZARIAK

**Larrañaga
Eguren, B. M.**

Juan XXIII
Tf. eta Faxe 76 11 88
20.570 BERGARA

BERGARAKO UDALA



Bergarako Udalean
zure zerbitzura gaituzu:

Idazkaritza- Bulego orokorrak	77 91 00
Faxa	77 91 63
Alkatetza	77 91 01
Angiozarko liburutegia	76 16 19
Artxiboa	77 91 32
Bideo zerbitzua	77 91 58
Euskara zerbitzua	77 91 66
Gizarte ongizatea	77 91 65
Haur dinamizazioa	77 91 60
Hirigintza	77 91 68
Igerilekuak	76 20 51
Kirolak	77 91 67
Kiroldegia	76 56 41
Kontuhartzailtza	77 91 64
Kultur etxea	77 91 58
Liburutegia	77 91 62
Mizpirualde egoitza	76 13 68
Museoa eta ondarea	77 91 61
Nekazaritza	77 91 68
Obra eta Zerbitzuak	77 91 52
Turismo bulegoa	77 91 28
Udal euskaltegia	76 44 53
Udaltzaingoa	77 91 06

Ondo pasau Pentekoste jaixak
bergararrok eta bisitatzeko gaituzuenok!

Zezenzaleak taldearen domeka-ko txekorketan David Calleja getxotarra eta Jose Luis Barrero salamancarra arituko dira. Barrero (20 urte) oso ilusionatuta dago eta Bergarako zalegoari faena bikaina eskeintzeko itxaropena azaldu zigun.

Bergarako Zezenzaleen deiak harritu zintuen?


Bueno, orain dela pare bat hilabete Lopez-Chavesen tentaderoan ikusi ninduten, Ledesman eta, egia esan, egun horretan oso ondo egon nintzen. Hona etortzeko proposatu zidaten eta ni beti nago gertu edonon toreatzeko. Gainera, Bergarako enpresari buruz gauza onak besterik ez ditut entzun eta oso baldintza onetan noa. Horrelakoetan, bitan pentsatu barik...

Zelako zezenketa espero duzu?

Oso giro ona egoten dela komentatu didate eta badaukat gogoia bertan toreatzeko. Daukadan guztia ematen saiatuko naiz eta gogor entrenatzen ari naiz, egunero kirola eginez eta karroarekin ezpata entsaiatuz. Toreo de salon delakoa lantzen ari naiz azken egunetan.

Definitu zure estiloa.

Txekorren aurrean gorputz eta ari-ma jarduten dut eta estilo garbia dudala esango nuke. Banderilak ere jartzen ditut... 12 urtetik 17 urtera bitartean Salamancako Zezen Eskolan izan nintzen eta aita izan nuen irakasle, bera ere toreroa izan baitzen. Gaur egun ere bera da nire maisua: erakustez gain, daukadan akatsak zuzentzen dizkit.



Lopez Cavesen txekorrak txuliatuko ditu Bergaran.

Zezenekin ere toreatu ei duzu...

Bai, baina oso gutxi eta orain zezen barik ari naiz tonu egokiena hartzeko. Negu honetan tentadero askotan izan naiz.

Domekan David Calleja ere arituko da Bergaran. Ezagutzen al duzu?

Ez, Bergarako zezenzaleek Biasterira egindako irteeran biok izan ginen, baina berandu heldu nintzen eta ez nuen toreatzen ikusterik izan. Baina oso ausarta dela entzun dut.

Eta Lopez-Chavesen txekorrei buruz zer esango zeniguke?

2. mailako burdina da Lopez-Chavesena eta errespetu handia diot. Tentaderoan izan ginenean, behintzat,

txekor majoak atera zizkiguten, ederki egiten zuten eraso.

Superstiziosoa zara?

Bai, mania asko daukat, hoteleko logelako argia piztuta lagatzea adibidez. Eta zezenketa egunean ez zait ezer txarrik ikustea gustatzen, suerte txarra ekarriko didalakoan edo...


Estanpak ere zurekin eramango dituzu...

Puffff!! Pilo bat, ia amabirjina guttienak: Macarenakoa, Rociokoa, Pila-rekoa... eta hainbat kristo ere bai: Cristo del Gran Poder eta beste zenbait.

Eta pentsatu duzu igandeko faena nori eskainiko diozun?

Momentuz ez dut horretan pentsatu. Nire helburua txekorketa ona egitea eta txekorrek eraso egin ezean, nik neuk jokoa ematea da. Gero geroakoak...

"Txekorrak eraso egin ezean nik neuk jokoa ematea da nire asmoa"



ONGI PASA
JAIK!



Zure
Opari Donda
Bergara

Barrenkalea, 27

E G I T A R A U A



08:00:
Udal Txistulari Bandarekin alborada.

08:15:
Diana Elgoibarko dultzaineroekin.

08:30:
Azpeitiko bandaren kalejira.

09:00:
Entzierroa Barrenkaletik zezen plazaraino. Ondoren, enbolatuak.

09:00:
Lehen eta bigarren mailako afizonatuendako txirindulari lasterketa, LXII. Pentekoste saria. Eguerdiko 12ak inguruan helmugaratuko dira Ibargaraira.

09:30:
Taldekako xake txapelketa, XXVI. Bergara Hiria saria, Mariaren Lagundian.

10:00:
Kostaldeko herrien eta barrualdekoen arteko xake lehia, Mariaren Lagundian.

11:00:
Meza nagusia San Pedro elizan, Udaltzatza partaide dela eta Udal Musika Bandak eta Udal Txistulari Bandak lagunduta.

11:30:
XX. Euskadiko Dantza Suelto Txapelketa, hamabost urtez azpikoentzako, San Martin plazan. 10 bikote onenak sailkatuko dira.

12:30:
Udal Musika Bandaren kontzertua Espaloian.

Egitaraua:

- "Preludio de concierto". P. Sparke.
- "Guillermo Tell". Obertura. G. Rossini.
- "Maram". Saxo altua eta banda. J. Penders.
- "Las golondrinas". Pantomima. Usandizaga.
- "Orient Express". P. Sparke.

Zuzendaria: Alfredo Gonzalez Chirlaque.

13:30:
Aupa Navarra taldeak Nafarroako jotak eta kantak abestuko ditu kaletan zehar.

16:30:
Xake partida azkarren txapelketa irekia Zabalotegin, gauera arte.

17:00:
Profesional mailako pilota partiduak Udal Pilotalekuan. Retegi II, Elkoro, Unanue eta Zezeagak jokatu dute.

17:30:
Azpeitiko Udal Musika Bandak eta Elgoibarko dultzaineroek alaitutako kalejira San Martin plazatik zezen plazaraino.

17:30:
Euskadiko Dantza Suelto XX. Txapelketako finalak San Martin plazan, 15 urtez azpikoendako.

18:00:
Zezenketa: Jose Luis Barrero salamancarra eta David Calleja getxotarra. Salamancako Ignacio Lopez Chavesen txekorrek txuliatuko dituzte.

20:00:
Azpeitiko Udal Musika Bandak alaitutako kalejira herriko kaleetatik zehar.




22:00:
Suzko zezena San Martin plazan.

23:30:
Kanp dantzaldia Tarantellarekin San Martin plazan.



David Calleja eta Jose Luis Barrero toreroak ekarri dituzte aurten Zezenzaleak taldekoek domekako txekorretarako. Ignacio Lopez Chavesen txekorrek txuliatuko dituzte.



Lurrindegia
Edertze aretoa

alga

Ibargarai, 10 Tf. 76 00 85

CLINIQUE

PARFUMS

GIVENCHY

ROCHAS

PARIS

BOUCHERON

PARFUMS

PARIS

PAYOT

PARIS

GUCCI



Iñaki Labaka UDALZAINA ETA MAZEROA

Zein da mazeroen betebeharra parte hartzen duzen ekitaldietan?

Nolabait, udal korporazioari laguntzeko funtzioa daukagu. Musika Bandaren atzetik joaten gara eta gure atzetik alkatea eta zinegotziak datoz. Aspaldiko ohitura da mazeroen eta udaletxe gehienetan mantentzen da oraindik ere. Momentuan, Bergarakoan bi mazero gaude, Bittor Satorretxe eta biok. Ni orain dela 6 bat urte hasi nintzen, jende falta zegoela eta ea hasiko nintzen galdetu zidaten. Normalean San Martinetan, Pazkuetan eta Santa Marina-ko jaietan irten behar izaten dugu eta gustora egiten dut. Itxura xelebrea daukagula? Adar jote batzuk jasan behar izaten ditugu bai. Trajeak berriztuta daude, baina nahiko izerdi egiten dugu bai, bero egiten badu, peluka izaten da txarrena...

“Mazero jantzita dugun itxuragatik adarra jotzen digute”

Kinkilariak: Erdiko kaleak salmenta postuz beteta

Kinkilariak ere Pazkuetako protagonistak izaten ditugu. Herriz herri dabiltzan kale saltzaille ugari izaten da egunotan (iaz 60 bat postu jarri ziren) eta euren postuetan ia denetarik aurkitzeko aukera izaten da.

Felix Hernandez katalandarra zapi bat urtetan izan da jaietan. Salmenta postua lrala kalean jartzeko ohitura dauka; *“jende asko ibiltzen da eta gustatzen zait egoten den giroa”*. Felixek, nagusiki, zilarrezko produktuak saltzen ditu. Bere ustetan zilarrezko orkatilakoa da aurtengo produktu izarra; *“oso ondo saltzen ari da, baina orokorrean, diseinu berri bat egoten den bakoitzean, nahiko errez saltzen da. Nork aukeratzen duen? Emakumeak aukeratu eta gizonak ordaintzen du normalean”*. Felixek kanpotik ekartzen ditu salgai izaten dituen produktuak; *“azkenaldian Italian prezio one-*

an dago zilarra”. Nola ez, *Spice girls* taldearen moda honelako kale postuetara ere iritsi da; *“kolgante batzuk daukat saltzeko eta oso harrera ona izan dute”*.

Felixek azaltzen digunez, *“bizimodu gogorra da; lan asko egin behar da baina behin merkatua ezagutuz gero eta merkantzia lortzen asmatzen baduzu..., baina gustatu egin behar zazu, bestela ez duzu jarraitzen”*. Euskal Herrira gero eta gehiago kostatzen zaio etortzea; *“Tolosako karnabaletan Arratibelen hilketa gertu tokatu zitzaidan eta gauza horrek ez dira batere atseginak”*. Bergaran lagun batzuk izan arren, ez du aukerarik izaten jaiekin disfrutatzeko; *“goizez deskantsatzen geratzen naiz. Monumentu bikainak daude Bergaran eta zubia pasauta, erreka ondoan dagoen parkea ere oso ondo dago. Siesta ederak bota izan ditut han”*.



Ia urte gutxian herriz herri ibiltzen da Felix. Bergaran azken zapi urteetan izan da.



*Saneamientos
de Gipuzkoa, S.L.*

Bulegoak eta biltegia:
Amillaga poligonoa, Santalaitz kalea, 2
234 postakutxa
BERGARA
Tf. 76 06 44, faxa 76 06 45

BEROGAILU ETA SANEAMENDURAKO MATERIALAK

PVC, KOBRE ETA BURDINAZKO TUTUERIA

PVC, KOBRE ETA BURDINAZKO
OSAGARRIAK

ERA GUZTIETAKO BALBULA ETA KANILAK

■ DANTZA SUELTOA • BERGARAKO BIKOTEAK

Euskal Herriko 15 urtez azpiko-entzako dantza txapelketako finala jokatu da domekan, arratsaldeko 5etan, San Martin plazan. Adin horretako Euskal Herriko dantzari onenak izango dira lehian; horien artean, Bergarako Moises Aspiazu dantza taldeko bost bikote.

Moises Aspiazu taldeko dantzariak urte osoan zehar ikasitakoa praktikan jartzeko aukera ederra izango dute domekan, Euskadiko XX. Euskadiko Dantza Askatuko Txapelketan. Goizeko 11:30etatik aurrera lehen kanporaketa jokatu da San Martin plazan bertan, eta 10 onenak arratsaldeko finalerako sailkatuko dira.

Euskal Herri osoko 30 bikotek eman dute parte hartzeko izena eta tartean Moises Aspiazu dantza taldeko 7 urtetik 10 urtera bitarteko 5 bikotek. Honako hauek arituko dira: Jon Urteaga eta Miren Iraeta, Alex Torre eta Josune Fernandez, Andoni Elortza eta Hiart Bolinaga, Ion Arrillaga eta

Ibane Bazeta eta Mikel Igartua eta Ainhoa Bolinaga.

Domekako txapelketarako jo eta ke ari dira entrenatzen Dani Aspiazu eta Jon Aranbururen aginduetara. "Nahiko urduri gaude txapelketa Bergaran jokatzeko delako eta Euskadiko bikoterik onenak etorriko direlako. Azkenengo asteetan gogor ari gara entrenatzen eta arratsaldeko probarako sailkatzeko esperantzak badauzkagu" esan digute dantzariak.

Astearte, asteazken eta eguakitzetan jarduten dute arratsaldeko 7etan Aranzadi ikastolako lokaletan eta ondo pasatzen duten arren, asko kantsatzen direla esan digute. "Ondo pasatzen dugu, baina entsaioetan asko nekatzen gara. Fandangoa ikastea zaila ez bada ere, kostatu egiten da; arin-arina, berriz, errezagoa da. Hila-

betean bi dantzak ikasi daitezke" adierazi digute.

Udaberrian lorak irtetzen diren bezala, maiatzean, negu partean entsaioetan landutakoa plazarik plaza erakusteko aukera izaten dute: "oso ondo pasatzen dugu txapelketetan parte hartzen; bat aukeratzekotan, Bergarako aukeratu genuke. Dantzari onenak etortzen direlako eta ezagunen aurrean dantza egiten dugulako" diote Moises Aspiazu taldeko bikoteek.

Joan zen urteko proban Alex Torre eta Iosune Fernandezek lortu zuten bakarrik finalerako sailkatzea; aurten, ordea, guztiek dute sailkatzeko esperantza. Izan ere, ondo prestatu dira eta, bestalde, plazako taulatura ezin dotoreago irtengo dira baserritar jantzi ederrekin.

Moises Aspiazu taldeko bost bikote arituko dira dantzan domekan

Domekan dantza sueltoko txapelketan parte hartuko duten

Moises Aspiazu dantza taldeko kideak. Ezkerretik hasita, goian: Ibane Bazeta, Ion Urteaga, Miren Iraeta, Alex Torre, Iosune Fernandez eta Andoni. Behean: Mikel Igartua, Hiart Bolinaga, Ainhoa Bolinaga eta Ion Arrillaga.



KAZOLATXOAK, PINTXOAK, BOKADILLOAK ETA AFARIAK DIRA GURE BEREZITASUNAK.

*Ondo pasan
jaizak!*

PISZINETAKO

*Ondo pasan
jaizak!*

TABERNA

BERGARA TF. 76 53 55

Egurrezko apalategiak • Zurezko ate eta leihoak



ARDATZA
Brikolaketa

Masterreka 4, behea Tf. 76 18 93

Neurrira ebakitako tableroak,
apalak eta kajoak.
Horma armairuak.
Apalategiak.

Zokaloak, tarimak eta parketak.
Era guztietako moldurak.
Sarrailak eta manillak.

Eskulanetarako gaiak • Egurrezko materiala eskuz pintatzen dugu



Saunier Duval



DICOMAN S.L.

San Lorentzo, 21

20.570 Bergara

Laguntza teknikorako zerbitzu
ofizial baimendua

Tf. 76 06 61

BEROGAILUAK, KLIMATIZAZIOA ETA UR BEROA

BASTER



Zorionak
denoi
Pentekoste
jaietan!

Zure estiloa Baster-en dago. Zatoz eta ikus.

Telesforo Aranzadi, 2. Tf. 76 10 08



ARREGI AROZTEGIA

Arozlan mekanikoak

Ateak

Horma armairuak

Tarimak-Parketak

Neoprenozko
juntadun egurrezko
leihoak

KAPRESA PVCzko
leihoak



TAILERRA: Urteaga, 20 Tf. 76 11 73 • ERAKUSKETA: Bidekurutzeta, 38 Tf. 76 31 03

AZPEITIKO BANDA • DOMEKAN ZEZENETAN

Azpeitiko banda aurten etorriko da lehen aldiz Bergarara. San Inaziotan Azpeitiko zezenketan aritzen den musika bandak alaituko du, Elgoibarko dultzaineroekin batera, domekako txekorketa. Egun guztian zehar ibiliko dira kalez kale.

Jose Luis Frantzesenarekin (Schubert), bandako zuzendariarekin, berba egin dugu. Bandako arduraduna izateaz gain, besteak beste, Julian Barrenetxea koruko zuzendaria ere bada; Azkoitiko Musika Eskolan eta Donostiako Kontserbatorioan klaseak ematen ditu. Horrez gain, Azpeitia, Azkoitia eta Loiolako parroketan organoa jotzen du eta fandango eta arin-arin konposizio asko egin ditu txistuz joto. Eganeko sortzailea izan zen eta Eganeko Saldiasen lehengusua eta Trabuko taldeko baterajolearen anaia da.

Aurten etorriko zarete lehen aldiz Bergarara.

Bai, nik dakidala, Azpeitiko Udal Musika Banda ez da Bergaran inoiz izan. Banda 65 lagunek osatzen dugu, baina domekan 45 bat besterik ez gara joango. Banda gaztea da, partaide gehienak 18-19 urtekoak baitira.

Toki askotako zezenketak alaitzen ibili zarete, ez?

Bai, Azpeitikoez gain, Tolosako eta Nimeseko zezenketak ere alaitzen ditugu. Esan daiteke paso-dobleetan espezializatu garela. Bestalde, uda partean batez ere, dantzaldiak ere egiten ditugu herri askotan. Aurten, esate baterako, banda gaztearekin Biasterira joango gara eta handik San



65 lagunek osatzen dute Azpeitiko Udal Musika Banda.

Ferminetara. Denetik egiten dugu. Bergarako zezenketan paso-dobleak joko ditugu, baina entzierroaren bukeran, euskal piezak, San Ferminetakoak-eta ere bai.

Zu zeu zezenzalea zara?

Bai, baina torerozalea baino zezenzalea naizela esango nuke. Azpeitian zezenetarako afizio handia dago, zezenketak ezezik sokamuturrak eta enbolatuak ere oso arrakastatsuak dira eta jai guztietan antolatzen dira. Beharbada zezen plaza dagoela izango da.

Ezagutzen duzu Bergarako banda?

Bai, noski. Oso ona da, Gipuzkoako onenetakoa. Orokorrean oraingo bandak lehengoak baino hobekak dira, musikoak hobeto gertatuta daudela

ko. Bestalde, Bergarako Musika Eskolaren inguruan antolatu diren ikuskizunak ezagutzen ditut eta oso aberasgarriak iruditzen zaizkit herriko kulturarentzat. Herritarrek egindako era horretako muntaiak antolatu izanak asko esan nahi du.

Herriko txistulariekin ere egiten duzu lan.

Bai, Azpeitiko txistulariekin diskoko grabatu berri dugu. Azpeitiko piezak grabatu dira, Txokolo txistulariarenak, eta San Inaziotarako kalean izango da.

Entzun dugu batutaren ordezkari puru handi bat erabiltzen duzula banda zuzentzeko...

Bai, jaigiroan murgilduta gaudenean 25 bat zentimetroko puroarekin ibiltzen naiz. Tabernetakoek oparitzen didate eta erre egiten dut, ez pentsa...

"Azpeitikoez gain, Tolosako eta Frantziako Nimeseko zezenketak ere alaitu izan ditugu"

Winterthur-ek

segurtasuna ematen dio zure bizitzari, aseguru aukera zabala eskainiz: etxebizitza, merkataritza, autoa, bizia, istripuak, osasuna eta gure errentabilitate handiko jubilazio eta pensio planak.

Kalitatea eta zerbitzua preziorik onenean eskaintzen dizkizugu Winterthur-en.

winterthur

aseguruak

Zurradero, 6 behea Tf. 76 17 40... ETA ONGI PASA JAIK!

EGITARRAUA



Udal Musika bandak kontzertua eskainiko du domeka eta astelehen eguerdian. Aurretik kalejira egingo du bandak.

08:30:
Kalejira Los Incansables txarangak alaituta.
09:00:
Entzierroa Barrenkaletik zezen plazaraino. Ondoren enbolatuak.



11:30:
Jolas parkea haurrendako Seminarioko patioan. Karrak, gaztelu puzgarriak, e.a.
11:30:
Barraketan haurrendako prezio be-
reziak izango dira ordu biak arte.

11:30:
Udal Musika Bandaren kalejira.
12:30:
Udal Musika Bandaren kontzertua Espaloian.

Egitaraua:
- "Olympic fanfare and theme". J. Williams.
- "Obertura festiva". Op 96. D. Shostakovich.
- "Four dances". J. Hademann.
- "La verbena de la paloma". T. Breton.
- "Big bands in concert". B. Lowden.
Zuzendaria: Alfredo Gonzalez Chirlaque.

16:00: Jolas parkea Seminarioko patioan iluntzera arte.
17:00: Profesional mailako pilota partiduak Udal Pilotalekuan. Arretxe eta Nagoreren arteko lau t'erdiko errebantxa.
18:00:
Herri festa zezen plazan, Los Incansables txarangak alaituta.
20:00:
Los Incansables txarangaren kalejira herriko kaleetatik zehar.
20:30:
Nueva Alaska taldearekin kanp dantzaldia Espaloian.
22:30: Rock kontzertua Bideberrin. Dut, Akusazte, Lili Moon. Lehenengo biak lehen aldiz Bergaran eta Lili Moon berriz ere gure artean, orain dela gutxi Jam aretoan izan baikenuen.
23:30:
Nueva Alaskak alaitutako dantzaldia Espaloian.
24:00:
La Parranda taldearekin dantzaldia San Martin plazan.



La Parranda taldekoek astelehen gaua alaituko dute San Martin plazan, errantxera, mexikanada eta abarrekin. Gauerditik aurrera.

Larrañaga

BANATZAILEA

Esnea, ura, sagardoa,
Errioxako ardoa, garagardoa...

Martoko, 32 behea
BERGARA

Telefonoa, 76 45 94
Mobila, 907 - 65 76 34



Harri Albisua ALKATE TXIKIA

Bergarako jaietan, zer da ilusio gehien egiten dizuna?

Kaleko dendak eta barrakak igual. Gehien gustatzen zaizkidan barrakak *Tropicana* izenekoa (platanoa) eta errealtate birtualekoa dira, fenomeno daude; denbora dexente pasatzen dugu barraketan eta gero..., ba, kalean bueltaka. Ilusio haundia daukat jaietarako, kuadrilakoak primeran pasatzen dugulako. Guztira, 21 lagun gara, baina gutxiago ibiltzen gara normalean. Joan zen urtean estreinatu genuen alkandora erabiliko dugu aurten: morea, hori fosforitua, urdina, beltza..., kolore asko dauzka eta politta da. Gauez? Buelatxo bat ematen dugu bai, baina ez gara berandurarte egoten. Normalean dantzara jotzen gara eta dantza piskat egiten dugu. Neskekin? Oso gutxi...

"Tropicana izeneko platanoa da barraka politena"

Barrakak: haur, gazte eta ez hain gazteen ilusioa

Bere familiak barraken munduan izan duen tradizioari jarraituz, Oscar Martinez feriaz feria ibili izan da txikitik. "Esta noche cruzamos el Mississippi" saioko Lucas Grijanderren estilora, Oscarrek zezen mekanikora hurbiltzen diren gaztetxoak animatzen ditu.

Barrakeroak nomada batzuk dira. Oscarren aita Jaenen jaio zen, ama Leonen, anaia Alicanten eta Oscar bera Valentzian. Martinez familiak bi atrakzio ditu gaur egun, zezen mekanikoa eta bata eta ohe elastikoa bestea. Oscarrek esaten digunez, "gure aita txikitatik etorri izan da Bergarara eta orain 48 urte dauzka... Lehen noria bat geneukan, baina ez zuen dirurik ematen eta saldu egin genuen". Oscarren ustez, gaur egun jendeak emoziozko barrakak ditu gustokoen; "bertigoa ematen dutenak gustatzen

zaizkie gehien. Emozio une bat bilatzen dute eta koadrilan bada, askoz hobeto, lagunartean barre egitea gustatzen zaie. Ia adin guztietako jendea etortzen da".

Jendeak primeran pasatzen duen bitartean, Oscarrek eta bere tartekoez lan egin behar izaten dute; "goizez pare bat orduz zabaltzen dugu eta arratsaldean, 5etatik goizeko 4ak aldera arte egoten gara, gauez helduagoak etortzen dira".

Urritik otsailera bitartean gelditu gabe ibiltzen da Oscarren familia. Tolosako ihauterietan martxan jarri eta Euskal Herria zeharkatu ondoren, Leon, Madril, Valentzia edo Sevillara ino heltzen dira. Oscarri gustatzen zaizkio Bergarako jaiak; "herri nahiko txikia da, baina giro nahiko majoa egoten da, jendea ondo portatzen da. Jai onak dira guretako..., baldin eta euririk egiten ez badu, jakina".



Oscar Martinezek dioenez, adin guztietako jendea ibiltzen da zezen mekanikoan.

BOLINTXO

KIROLAK



Ibargarai, 10 Tf. 76 38 32

PILOTA • PENTEKOSTE TXAPELKETA EDERRA

Asegarce eta Alti pilota enpresek Pentekoste feria erakarri gertatu dute aurtengo jaietarako. Pilotazaleek banaka zein binakako txapelketekin disfrutatze-ko aukera izango dute eta, emozioa bilatu nahirik, enpresek hainbat nobedade iragarri dute.

Zapatutik martitzenera bitartean pilota jaialdiak izango dira Udal Pilotalekuan; bertan, banaka zein binakako txapelketak jokatu dira. Banakakoan, Goñi II.a, Olaizola, Koka eta Agirre izango dira lehian, bigarren mailako txapelketako lau onenak hain zuzen ere. Goñi II.a eta Olaizolaren arteko finalerdia zapatuan (16:45tan, Tele 5 kateak zuzenean eskeiniko du partidua) izango da eta domekan, berriz, Kokak eta Agirrek neurtuko dituzte indarrak. Irabazleek martitzenean jokatuko dute finala (16:30etan, ETB 1).

Partiduak 12ra

Baina, nobedade nagusiak binakako txapelketan izango dira. Zapatuan Alustiza-Errandonea eta Titin III.a-Beloki bikoteak aurrez aurre izango dira (Tele 5), baina partidua 12 tantura izango da. Ondoren, atzelariak eta aurrelariak aldatuta, Alustizak eta Belokik Titin III.a eta Errandonearen aurka 12 tanturarteko beste partidua jokatuko dute. Puntu gehien lortzen dituzten aurrelariak eta atzelariak martitzeneko finalerako bikotea osatuko dute. Domekako jaialdian Retegi II.a, Elkorro, Unanue eta Zezeagaren artean beste horrenbeste lortzen



Retegi II eta Zezeaga Bergaran izango dira Pentekoste txapelketan.

du tenak izango dira beren arerioak martitzeneko finalean. Berdinketa kasuan, pilotaririk gazteena sailkatuko litzateke finalerako. ETBk martitzenean eskeiniko duen finala, berriz, 22 tantura jokatuko da.

Jaietako festibalak osatuko dituzten partidua honako hauek izango dira: Tolosa III.ak eta Imazek Zabala eta Olidenen aurka jokatuko dute zapatuan; domekan Soroa III.a eta Urria Errandonea eta Apeztegiaren kontra eta martitzeneko hirugarren partiduan, azkenik, Urionaguena-Balardi eta Lejardi-Mendia bikoteak.

Aretxe eta Nagore lau t'erdian

Hori gutxi balitz, astelehenerako ere jaialdi bikaina iragarri da. Estelarra feriako partidurik onenetakoa izango baita, Arretxe txapelkunak eta Nagorek lau t'erdiko finalaren errebantxa jokatuko baitute.

Banakako finalean Elkorori nagusitu ondoren, Arretxe feriako izar nagusienetakoa izango dugu eta sasoi betean dagoela erakutsi ahal izango du naparrak. Astelehenerako jaialdia osatzeko, aurretik, banakako beste partidua izango da, Santi eta Lasa III.aren artekoa honako hau, eta, azkenik, Etxanizek eta Armendarizek osatutako bikoteak Salaberria eta Errastiren aurka jokatuko du. Beraz, pilota jaialdi ederrak jaietan.

Arretxe eta Elkorro, manomanoko finalistak Bergaran izango dira

Kafe - Taberna • BERGARA • Pentsioa

Gaur, maiatzak 16, arratsaldeko 7etatik 8etara
INAUGURAZIOA...

Zatoz, gonbidatuta zaude!

Pintxoak, kopak, boiloak...

Egunero goizeko 7etatik zabalik
Bidekurutzeta, 34 Tf. 76 47 23



ION AUTOAK



Tailer berriaren irekiera Amillagan

Gure bezeroei zerbitzu hobea eman nahian, jaien ostean,
tailer aldaketa egingo dugu eta
erakustareto berri eta zabala irekiko dugu.
Puntako teknologiadun makina berriak ere jarri ditugu.





Zatoz **maiatzaren 23an**, ostirala, arratsaldeko 7etan
egingo den **inauguraziora**. **Gonbidatuta** zaude!

Amillaga, 36 BERGARA Tfk. 76 47 49 - 76 47 73



CITROËN

ATEZ ATEKO ENPRESETAKO PAKETERIAN ESPEZIALISTAK



BERGARA (GIPUZKOA)
San Juan Erreka. Elgetara bidea.
Tfnua: 76 36 42 - Faxa: 76 54 25.

Dut, Akusazte eta Lili Moon taldeek Bideberrin joko dute astelehenean gaueko 10:30etatik aurrera. Dut hondarribitarrak European zehar ibili berri dira hainbat tokitan kontzertuak eskaintzen. Galder Izagirre bateriajolearekin egin dugu berba.

Zeintzuk osatzen duzue taldea?

Hiru lagun gara: Xabi kitarra, Joseba baxua eta ni, Galder, bateria. Due la 4 urte hasi ginen jotzen. Hasieran 5 lagun ginen, baina lan arazoak direla eta, bik utzi egin dute taldea. Bi disko atera ditugu bakarka, eta beste bat Hondarribiko beste talde batzuekin batera.

Zer eskainiko duzue Bergaran?

Festibalak ordu eta erdi inguru iraungo du eta gehienbat abenduan ateratako azken diskoko 15 abesti joko ditugu. Horrez gain, Hondarribiko taldeekin ateratako bildumako beste abesti bat joko dugu. Espero baino hobeto irten zaigu diskoa, denbora gutxi izan baikenuen grabatzeko. 10 egun izan ginen grabatzen eta larri samar bukatu genuen. Jendearen erantzuna oso ona izan da, hilabete bakarrean aurreko diskoak urtebetean saldutako adina saldu dugu eta. Zaila da gure musikaren estiloa definitzea, baina hard-coretik oso gertu gaude.

Noizbait izan zarete Bergaran, zerbait badakizue Bergarari buruz?

Ez, inoiz ez gara izan, baina gogo haundia dugu. Gainera, asko gustatzen zaigun Akusazte taldearekin batera joko dugu.

Zer moduz European zehar egin berri duzuen gira?

Primeran. Hiru astetan Alemania, Suitza, Frantzia eta Txekian zehar 10 kontzertu eman ditugu. Ikusleen artean denetik egon da, kontzertu batzue-



Abenduan argitaratutako diskoko 15 abestiak eskainiko dituzte.

tan jende gutxi izan dugu, baina beste batzuetan oso ondo. Kolonia eta Zuricheko kontzertuak izan ziren potenteenak.

Abestien hitzei garrantziarik ematen al diozue?

Gero eta gehiago. Abestien bidez komunikazioa lortu nahi dugu, buruan daukaguna isladatu nahi dugu eta. Abesten dugunari zentzu bat ematen saiatzen gara. Salaketa letrak egiten ditugu, baina ez oso zuzenak.

Gehiago saltzeko erderaz kantatuko zenukete?

Ingelesez badaukagu abesti bat, baina gure hizkuntza euskara da eta hori bultzatzen saiatzen gara. Halere,

ez daukagu jarrera itxirik, zerbait isladatzeko erderaz abestu behar baldin badugu, egingo dugu; baina ez disko gehiago saltzeko.

Zer musika entzuten duzue?

Denetik, baina jazz eta hard-corea batez ere. Helmet eta Kyuss talde estatubatuarrak asko gustatzen zaizkigu.

Etorkizunerako proiekturik?

Kontzertu piloa emango dugu Euskal Herrian zehar; Galizia eta Kataluniara ere joango gara, eta uztailaren 15 egun Kuban egingo ditugu Che Guevararen omenez antolatutako ekitaldietan parte hartzen.

“Abestien bidez komunikazioa lortu nahi dugu, buruan duguna isladatu”

ONDO IBILI JAIXETAN!

Mekolalde taberna

Mekolalde auzoa z/g Tf. 76 50 18

08:30:

Kalejira Los Incansables taldeak alaituta.

09:00:

Entzierroa Barrenkaetik zezen plazaraino. Ondoren enbolatuak.



Herri poteoaren ondoren bazkaria San Martin plazan kuadrilentzat; ondoren karaokea. Musika idoloak imitatzeko aukera ederra.

10:00:

Plater tiraketa San Juan auzoan, Ollagorra elkarteak antolatuta.



Martitzenean egun guztian zehar martxan egongo da Herri Tre-na. Fraiskozurik irtengo da eta herritik zehar ibiliko da. Herriko txoko izkuturen bat ezagutzen ez baduzu, aukera ederra trenean.

11:30:

Herri trenaren ibilera, Fraiskozuri plazatik irtenda.

12:00:

Aranzadi Ikastolako dantza taldeen erakustaldia San Martin plazan.

13:00:

Herri poteoa.

14:30:

Kuadrilen arteko herri bazkaria San Martin plazan.

17:00:

Karaokea San Martin plazan.

17:00:

Profesional mailako pilota partiduak, Udal Pilotalekuan. Pentekostes txapelketako banaka eta binakako finalak.

17:00:

Herri trenaren ibilera herriko kaleetatik zehar gauera arte.

18:00:

Kuadrilentzako jokuak zezen plazan, Los Incansables txarangak alaituta.

20:00:

Kalejira Los Incansablesekin.

20:00:

Dantzaldia Trabuko taldearekin San Martin plazan.

24:00:

Bitorianatxoren igoera Udaletxeko balkoitik.

24:30:

Trabukok alaitutako dantzaldia. Xafre eta Zaharra eta Izaro eta Ion trikitilariak eta Los Incansables txarangak alaituko dituzte kaleak egun guztian zehar.



Asegarce eta Alti pilota enpresek pilotari onenekin sekulako Pentekostes txapelketa antolatu dute aurten Bergarako jaetan, banaka zein binaka. Elkorre eta Arretxe, manomantako finalistak izango dira.



ZERGALARITZA, KONTADURITZA, GENERALI ASEGURUAK
Espaloia, 12. 42 posta kutxa 20.570 BERGARA
Tf. 76 26 09 - 76 31 19 - Faxa 76 31 19



David Maestre
ZEZENALEAK TALDEKOA

Zer behar da entzierroa ondo korritzeko?

Denboraz irtetzen jakin behar da, hori da inportanteena. Normalean hiru egunetan korritzen dut eta, normala denez, jende gehien domekan izaten da, kanpotik jende asko etortzen da eta. Etxenagusiatik Lasako aldapa hasten den tokirainoko tartea gustatzen zait gehien, jende gutxi egoten delako. Baina oso errekorrido azkarra da, zuzena, eta ez dago inolako kurbarik txekorrak momentu batez geratzeko ere. Egja esan, hasierako urtetan jende gutxik korritzen zuen baina gero eta jende gehiago animatzen ari da. Ni, normalean, *gaupasa* egin eta gero joaten naiz baina kontrolatu egiten dut eta ez dut sustorik izan orain arte. Gosaldu? Amaitutakoan bokadilo on bat eta ohera... Enbolatuak ere asko gustatzen zaizkit.

“Entzierroan denboraz irtetzen jakin behar da”

Kuadrilen egunean herri bazkaria eta karaokea

Jardun elkarteak herriko zenbait kuadrilaren laguntzaz antolatutako herri bazkaria iragarri da martitzenerako. Jaiei amaiera ezin hobea emateko asmoz, kuadrila guztiei bertara joateko gonbidapena luzatu nahi zaie. Gainera, bazkalosteko karaokean, ziur ikuskizun bikaina izango dela...

Hirugarren urtez jarraian herri bazkaria Plazan egingo da. Joan zen urtean 115 lagun inguru bildu ziren eta giroa primerakoa izan zen. Nekane Gabilondo Jarduneko Gazte Taldeko kideak esaten digunez, *“oso giro ona izan zen iaz eta gustatuko litzaiguke aurten ere jendea animatzea. Eta ez bakarrik jende gaztea. Hain “gazteak” ez direnei ere etortzeko deia egin nahi genieke. Zenbat eta gehiago elkartu, askoz hobeto”*.

Bazkariaren aurretik Xafre eta Zaharra eta Izaro eta Jon trikitilariak alaitu-

tako poteoa egingo da herriko kaleetan. Eta 14:30etan bazkariari hasiera emango zaio. Aurtengo menua honako hau izango da: arroza, oilaskoa patata frijituekin, izozkia eta ijito-besoa postrean eta, azkenik, kafea. Bazkalondoa animatzeko, berriz, karaokea antolatuko da mahaikideen artean. Iazko bazkarian izan zirenek oraindik ere gogoan dituzte orduko emanaldi bikainak... Aurten ere, martitzenean oraindik ere ahotsa baldintza minimoetan dutenek, behinik behin, euren kanturako maila erakutsi ahal izango dute jendeaurrean. Nekane Gabilondoren hitzetan, *“telebista monitore baten laguntzaz, partaideek hainbat musika talderen kantak abesteko aukera izango dute: Hertzainak, Zarama, Kortatu, Itoiz...”*. Bazkarirako txartelak Kartzela Zaharrea edo Pol-Pol, Kortazar eta Arrano tabernetan 1.000 pezetan salgai.



lazko bazkariko karaokeak sekulako ikusmina piztu zuen Plazan.

Industria hornikuntzak



UNIFE

Industriaren alde

MEMESA S.L.

Nafarroa Etorbidea, 9 ARRASATE. ☎ 79 42 22 • Faxa: 76 47 89. Santa Kruz, 25 ARETXABAETA. ☎ 77 11 75 • Faxa: 77 13 08

erlojutegia
i RUDI
bitxitegia

Konponketarako tailerra daukagu

Ibargarai, 2

Tf. 76 51 65

ELKAR Fotokopiak

Arruriaga, 1 behe. Tf. eta faxa, 76 58 16

**MAIATZ, EKAIN ETA UZTAILEAN
ESKAINZA BEREZIA**

DIN-A 4

500 KOPIATIK AURRERA	5 PTA/BAKOITZEKO
1.000 KOPIATIK AURRERA	4,5 PTA/BAKOITZEKO
5.000 KOPIATIK AURRERA	4 PTA/BAKOITZEKO
10.000 KOPIATIK AURRERA	3,5 PTA/BAKOITZEKO
20.000 KOPIATIK AURRERA	2,5 PTA/BAKOITZEKO

DIN-A 3

500 KOPIATIK AURRERA	7,5 PTA/BAKOITZEKO
1.000 KOPIATIK AURRERA	6,5 PTA/BAKOITZEKO
5.000 KOPIATIK AURRERA	5,5 PTA/BAKOITZEKO
10.000 KOPIATIK AURRERA	4,5 PTA/BAKOITZEKO
20.000 KOPIATIK AURRERA	4 PTA/BAKOITZEKO

Eta orain gainera **KOLORETAKO** fotokopiak laserrean
DIAPOSITIBETATIK nahiz NEGATIBOETATIK.

■ XAFRE ETA ZAHARRA • TRIKITI SOINUAK

Xafre (soinua) eta Zaharra (panderoa) trikitilariak ez dute hutsik egin azken urteetako Pazkuetan eta aurten ere martitzenean Bergarako kaleak alaituko dituzte Izaro eta Ionekin batera. Jose Luis Etxeberria "Xafre" (40 urte) eta Jose Antonio Irastorza "Zaharra" (38) Zaldibikoak dira eta urte asko daromatate trikiti soinuak herriz herri zabaltzen. "Xafre"rekin berbetan jardun dugu.


Bitorianatxo bezala, azkenaldian zuek ere Pazkuetako fijoetakoak zarete.

Bai, azkenaldian urtero deitu digute eta oso gustora ibiltzen gara Bergaran. Ni oso juergazalea naiz eta beti gustatu izan zaizkit Bergarako jaiak, gaztetan urtero etortzen nintzen astelehen eta martitzenetan eta sekulako parrandak egiten nituen. Bestalde, azken urteetan Erramu Zapatuko ferian eta San Martzialetan ere izan gara. Bergarako San Martzialgo erromeria orain dela bi urte ezagutu genuen eta sekulako ustegabea hartu genuen, inpresionatuta geratu ginen, hura zen giroa! Euria egin zuen eta jende guztia lokatzetan egon arren, giro aparta egon zen. Toki gutxitan ezagutu dut horrelako ambientea.

Xafre eta Zaharra noiztik elkarrekin?

Betitik, gaztetatik elkarrekin aritu gara kuadrila berekoak garelako. Hala ere, hasieran Roman Elosegirekin (panderoa) jotzen nuen.

Zuek sortutako piezak ala beste batzuenak jotzen dituzue?



Xafre eta Zaharra, stelahenean Izaro eta Ionekin batera arituko dira.

Betiko trikiti piezak jotzen ditugu: Sakabi, Epele, Laja, Martin eta abarrenak. Sortzea oso nekeza da, nahia-godu dugu besteenak jotea.

Tapia eta Leturia, Maixa eta Ixiar, Gozategi, Imuntzo eta Beloki... Horiei esker, modan jarri da trikitixa azkenaldian.

Bai, oso disko onak kaleratu dituzte eta plazarik plaza dabilta. Baina kalez kale ez dira aritzen, taulatuetan baizik, eta guri, oster, kalean ibiltzea gustatzen zaigu. Gero eta trikitilari gutxiago dabil kalez kale jotzen. Bestalde, jendearen ohiturak aldatu egin dira, orain tabernetan ibiltzen da jendea, musika oso altu jartzen da

eta soinu-joleentzako tokirik ez da. Askotan molestatu egiten dugula ematen du. Auzo txikietako festetan ere, gero eta jende gutxiago dabil eta dantzaren egitera ez da inor irteten.

Non ibiltzen zarete?

Negu partean gutxiago, baina apiriletik irailera bitartean astean lau egunetan ibiltzen gara jairik jai; Gipuzkoan, batez ere, baina baita Nafarroa eta Bizkaian ere. Azken urteetan Iparraldean asko ibili gara, astebeterako eta joaten gara: Senperera, Baionara...

Orain gaztetxo asko dabil trikiti eskoletan.

Bai, eta oso ondo iruditzen zait herri askotan trikiti eskolak egotea, baina asko gurasoek bultzatuta joaten dira. Martitzenean gurekin batera Bergaran arituko den Izarok (26 urte) Zaldibiko trikiti eskolan erakusten du. Nik, bestalde, Martinekin ikasi nuen.

"Trikitilari asko dago, baina kalez kale gero eta gutxiago dabilta"



LASA
Jatetxea

Ondo ibili
jaixetan!

OZAETA JAUREGIA Tfnoa: 76 10 55 Faxa: 76 20 29



Argazkia: Pedro Jose Eguren

Lagun kuadrila Espaloian, 1958ko Pazkuetan

Lehengo Pazkuak gogoratzeko hona hemen 1958an ateratako argazkia. Argazkian agertzen diren gazteek 18-20 bat urte izango zituzten orduan. Dirudenez, Pazkuetako ekitaldi gehienak Espaloian izaten ziren eta erretiratu bertako tabernaren ondoan atera zieten gaur egun Pertxa elkartearen inguruan ibiltzen diren lagunei.

Esan bezala, kontzertuak, dantzaldiak, motor karrerak, txirrindularitza eta beste hainbat ekitaldi Espaloian izaten ziren eta jende piloak elkartzen zen inguru hartan.

Jaiak ez zik herria bera ere asko aldatu da orduetik... eta askok, argazkia ikusita, ez dute Espaloia ezagutu ere egingo. Atzean ikusten den hesi horretan Espaloiko etxeak daude gaur egun eta kioskoa argazkiaren ezkerrean geratuko litzateke. Baina gauza asko aldatu dira orduetik..., ohiturak ere bai. Orain ez da ikusten txapela buruan daraman gazterik...

Horra hor argazkikoak, ezkerretik eskumara:

Eserita: Julio Ugarte, Pedro Egaña, Jose Miguel Lazkano, Pedro Jose Eguren, Jose Antonio Agirre eta Pedro Garcia.

Zutik: Roman Gallastegi, Jesus Mari Alberdi, Manuel Igartua, Jabier Lazkano eta Jose Ramon Madinabeitia.



San Antonio, 5 BERGARA ☎ 76 20 21

zumelaga
JATETXEA

EGUNERO ZABALIK!

ZERBITZU, KALITATE, KANTITATE ETA PREZIOAN PAREKORIK EZ! Jai zoriontsuak!



MODELO BERRIAK
Kalitate hobea preziorik onenean!!



OBRAREN PROIEKTUA ERAMATEN DUGU



Ibargarai, 11-13 BERGARA
Telefona eta faxa: 76 70 58



SUKALDE ETA BAINUKO ALTZARIAK

ZUBI-BERRI ● JATETXEA



Jabe berriak

*Zatozte koadrilan
Zubi -Berrira.
Bi jangela eder ditugu
lagunartean gustora
egon zaitezten.
Kriston martxa dabil!*



Erreategia • Eguneko menua • Plater konbinatuak • Banketeak

TELEFONOZ ERE
HARTZEN DIRA ENKARGUAK

San Anton auzoa BERGARA
TF. 76 41 06 - 76 30 24